

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Hitzarmen arautzailea, Bastidako Udalak Gatzaga Buradongo hirigunean bideak garbitu ditzan

2025eko maiatzaren 12an egindako ohiko osoko bilkuran, ekitaldira bertaratutako kide guztiek aho batez onetsi zuten Bastidako Udalak Gatzaga Buradongo hirigunean bideak garbitzeko zerbitzua emateko hitzarmen arautzailea. Hona hemen hitzarmenaren testua, hitzez hitz:

Hitzarmen arautzailea, Bastidako Udalak Gatzaga Buradongo hirigunean bideak garbitu ditzan

Bildu dira

Alde batetik, Daniel García Ruiz (NAN: 72***** - V, Bastidako alkate-lehendakaria, Bastidako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua ematen dizkion eskuduntzen arabera.

Bestetik, Fernando Uriarte Fernández de Pinedo, NAN: 18***** E, Gatzaga Buradongo Administrazio Batzarreko errejidore-lehendakaria, toki erakunde txikiaren izenean eta hura ordezkatzuz.

Bi alderdiek gaitasun nahikoa dute hitzarmen hau sinatzeko, Gatzaga Buradongo hirigunean bideak garbitzeko zerbitzua emateko.

Klausulak

LEHENENGOA. Printzipio orokorrak

Akordio honen bidez, Bastidako Udalak Gatzaga Buradongo herrigunean bideak garbitzeko zerbitzua emateko bete behar dituen baldintzak ezarri nahi dira.

BIGARRENA. Denbora eremua

Hitzarmen hau indarrean egongo da ALHAOn argitaratzen denetik aurrera Bastidako udalerriko kaleak garbitzeko zerbitzua udalaren eskumen den bitartean.

HIRUGARRENA. Kostu ekonomikoen banaketa

Gatzaga Buradongo Administrazio Batzarrak konpromisoa hartu du bideak garbitzeko zerbitzua ematearekin lotutako kostu guztiak bere gain hartzeko. Bideak garbitzeko zerbitzu izango da Bastidako Udalak Gatzaga Buradonen benetan lan egindako denboragatik ordaintzen dituenak.

Hitzarmen kolektiboen berrikuspenetik, antzintasunetik edo beste edozein arrazoiengatik erator daitezkeen langileen soldata eguneratzeak modu proportzionalen jasanaraziko zaizkio administrazio batzarrari.

Era berean, laneko baja egoeretatik erator litezkeen igoerak ere modu proportzionalen jasanaraziko zaizkio administrazio batzarrari.

Horiek horrela, eta hitzarmen hau sinatzen den unean dagoen egoera kontuan hartuta, administrazio batzarrak bere gain hartu beharreko kostua, bi langilerekin, ordu eta erdi astean, honela geratuko litzateke:

LANBIDE KATEGORIA	UDALAREN KOSTUA 2025 (22 ORDU)	2025EKO KOSTUA (25 ORDU)
gidari garbitzailea	13.920,15 euro	15.805,34 euro

Gidari garbitzailearen aldea: 15.805,34 euro - 13.920,15 euro = 1.885,19 euro.

LANBIDE KATEGORIA	UDALAREN KOSTUA 2026 (22 ORDU)	2025EKO KOSTUA (25 ORDU)
gidari garbitzailea	17.554,56 euro	19.932,28 euro

Gidari garbitzailearen aldea: 19.932,28 euro - 17.554,56 euro = 2.377,72 euro.

Gatzaga Buradongo Administrazio Batzarrak bere gain hartu beharrekoa: 1.885,19 euro 2025ean, eta 2.377,72 euro 2026an.

LAUGARRENA. Berrikuspenak

Kostuen berrikuspenak urtero egingo dira, eta unean-unean indarrean dagoen hitzarmenaren arabera eguneratuko dira.

BOSGARRENA. Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmen honek bi (2) urteko iraupena izango du guztira, eta automatikoki luzatu ahal izango da alderdiek hala adosten badute, Bastidako Udaleko bideak garbitzeko zerbitzuak udal izaera duen bitartean.

Akordio hau, bi alderdiek (udalbatzak eta kontzejuak) onetsi, izenpetu eta zigilatu beharko dute; Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio, haren berri izan dezan, eta ALHAOn argitaratu beharko da.

Bastida, 2025eko ekainaren 23a

Alkate-lehendakaria
DANIEL GARCÍA RUIZ